

Bigarren motako diabetesean depreskribatzea posiblea da

Deprescription in type 2 diabetes is possible

Pili Carmona Oyaga, Pedro Gemio Zumalave, Jon Ander Illodo Becerra, Estibaliz Picaza Iturricha, Yuriy Viseda Torrellas eta Olatz Ibarra Barrueta

Osakidetza. Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitalea. Farmazia Zerbitzua

mariapilar.carmonaoyaga@osakidetza.eus

1. Sarrera

Bigarren motako diabetes mellitus (DM2) diagnostikatuta duten adineko pertsonak, ez dute zertan kontrol glukemiko hain zorrotza jarraitu behar zenbait irizpide betetzen dituztenean (hauskortasuna, dementzia, bizi-itxaropen mugatua, pluripatologia...)1 helburu terapeutikoa %7,5-8 beherakoa izanik.

2. Helburuak

Tratamendu antidiabetikoaren desintensifikazio-proposamena egin eta onarpena neurtu. Desintensifikazio-proposamenak onartuta dituzten egoiliarrei 4-6 hilabetetan jarraipena egin.

3. Metodoak

Ospitaleko farmazia-zerbitzu bati atxikitako 8 egoitzetan egindako azterketa deskribatzaile bat da. Historia kliniko elektronikoa berrikusi behar izan dira inklusio-irizpideak betetzen zituzten egoiliarretan (>70 urte, DM2, antidiabetikoak edukitzea, Hemoglobina glikosiltua (HbA1c) < %7 eta endokrinologiako zerbitzuaren jarraipenik ez izatea) eta ondoren, egoiliar horien jarraipena egin zen.

Aldagaiak: adina, sexua, tratamendu antidiabetikoa, dementzia, komorbilitate-kopurua, GIT-Glomerularren Iragazte Tasa, HbA1c aurre eta desareagotu ostekoa.

Excel bidez aztertu ziren datuak.

4. Emaizak

DM2ren aurkako tratamendua zuten 130 egoiliarretatik, 77k inklusio-irizpideak betetzen zituzten. Berrikuspen sakona egin eta gero 66 egoiliarrei tratamendua desareagotzea gomendatu zitzaion. 34 (%51,5) emakumeak, batez besteko adina $84,03 \pm 6,81$, 40 (%60,6) demenziadunak, 44 (%66,6) 5 komorbilitate edo gehiago zituzten eta batez besteko GIT eta HbA1c $67,22 \pm 19,37$ eta $6,2 \pm 0,58$ izan ziren, hurrenez hurren.

Gomendioak (n): dosia murriztu (43), botika bat kendu (10), bi botika kendu (1), 3 farmako gabe utzi (1) eta tratamendu osoa bertan behera utzi (11) izan ziren. Eta onarpena %89,4koa (59) izan zen.

Desareagotzearen aurretik, farmako antidiabetikoen batez besteko kopurua $1,66 \pm 0,97$ izan zen, eta, desareagotzearen ondoren, $1,17 \pm 0,91$.

Pili Carmona Oyaga, Pedro Gemio Zumalave, Jon Ander Illodo Becerra, Estibaliz Picaza Iturricha, Yuriy Viseda Torrellas eta Olatz Ibarra Barrueta

Desintentsifikatu eta 4-6 hilabetera 43 pazienteren jarraipena egin ahal izan zen (4 egoiliar hil ziren eta 12tan oraindik ez dago HbA1c-ren emaitzarik). Desareagotzearen ondoren, HbA1c batez bestekoa %6,49 (%4,8-8,7) izan zen, 4 pertsona bakarrik helburu terapeutikotik kanpo.

5. Ondorioak

Farmazia-gomendioen onarpen-ehunekoa handia izan da eta pazientearen segurtasuna hobetzeko aukera bat izan da. Izan ere, ia paziente guztiak (%90,7) helburu terapeutikoaren barruan mantendu direlako eta farmakoen kopurua murriztu delako. Eta honen ondorioz, kontrako efektuak eta interakzio farmakologikoak murrizten dira..

6. Bibliografia

- Diabetes práctica 2023: 14(02):37-75. doi: 10.52102/diabet.pract.2023.2.art3
- 2022ko irailean zabaldu zen SENDAGAIK ZENTZUZ ERABILTZEKO GOMENDIOEI buruzko oharra:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/uso_responsable_medicamentos/eu_def/adjuntos/8-B-hipoglucemiante.pdf